



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

ERAIKUNTZA ETA BIRGAITZE JASANGARRIKO ENPLEGU PROGRAMARI BURUZKO TXOSTENA

LEAren proiektu-zenbakia: 169 (2016)

Aurkibidea:

TOC

Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) Osoko Bilkurak, 2016ko martxoaren 17an egindako bileran, arestian adierazitakoak bilduta, erabaki du txosten hau ematea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Laneko sailburuordeak (aurrerantzean, Enpleguko sailburuordea) Eraikuntza eta Birgaitze Jasangarriko Enplegu Programa dela-eta egindako kontsultari buruz.

I.- Txostenaren xedea

1. 2016ko urtarrilaren 19an, Lehiaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean, LEA) erregistroan sartu zen Enpleguko sailburuordeak egindako kontsulta, Eraikuntza eta Birgaitze Jasangarriko Enplegu Programa (aurrerantzean, Programa) dela-eta Hirutariko Gizarte Elkarrizketako Mahaian (aurrerantzean, Mahaia) hartu zen erabaki baten ondoriozkoa.

Mahaia eratzten dutenak Eusko Jaurlaritza, CONFEBASK enpresa-erakundea eta UGT eta Comisiones Obreras sindikatu-erakundeak dira.¹

Kontsultaren xedea da aztertzea ea Programa lehiaren araudiari egokitzen zaion.

¹ Eusko Jaurlaritzaren webgunean ageri denez, 2014ko abenduaren 4an eratu zen Mahaia. Ikus http://www.irekia.euskadi.eus/es/news/23494-gobierno-vasco-confebask-ugt-constituyen-mesa-dialogo-tripartito?criterio_id=776478&track=1.



II.- Aurkeztutako ekimenaren eta proposatutako neurrien helburuak

2. Proposatutako programaren berriazko helburua da eraikuntza-sektorea dinamizatzea. Sektore horretan «langile asko» behar da, «heziketa urriko edo heziketarik gabeko» langileak. Izan ere, bada «jarduera-nitxo» bat, «oro har oso helduak diren eraikinak» birgaitzen eta kontserbatzen.

«Sektorea [eraikuntzakoa] ingurumen-jasangarritasuneko» eta irisgarritasuneko «parametroei jarraituz birgaitze- eta kontserbatze-lanetara orientatzen lagunduko duen programa bat» bultzatu nahi da. Horretarako, asmoa da «kultura bat sortzeko» pizgarriak izango diren neurriak ezartzea eta «sustatze-ekintzetan Administrazioarekiko elkarrizketa bideratzea».

3. Programaren oinarriak hauek lirateke:

- diruz laguntzeko ekintza, birgaitze jasangarriaren aukera haren sustatzaile-onuradunei erakargarri egiteko,
- langileei heziketa eta prestakuntza ematea, eta
- sektoreko baldintzak hobetearren, lan- eta prebentzio-araudia betetzea.

Eskatzailearen iritziz, programa abiatzeko beharbada beharrezko litzateke ekimenaren hartzaile eta onuradun izango diren enpresak identifikatzea, beren borondatez erregistro edo zerrenda batean sartuta, eta aurrez beren materialak eta prozesuak ingurumenaren aldetik jasangarriak direlako erantzukizunpeko adierazpena eginda, baldin aurrez EEBE erregistroan inskribatuta dauden enpresak badira.² Erregistro horretan sartzeak enpresei zigilu edo marka bereizgarria emango lieke.

Zigilu bereizgarri hori lortzeko, enpresentzat, onura hauek leharzke:

- auzo-elkarteei emandako diru-laguntzak handitzeko aukera, enpresa horien zerbitzuak kontratatzen badira; edo are diru-laguntzetarako baldintzatat jartzea.
- enpresa horietako langileentzako edo «enpresa horiek kontratatzeko eskura geratuko liratekeen» langabeentzako heziketa-programa berriazkoetan parte hartzeko aukera.

Kualifikazio hori lortutako enpresek hitzemango lukete sindikatuen eta ugazaben «bisitatzaileei» sartzeko aukera emango lieketela, segimendua egitearren, hartutako konpromisoak eta lan- nahiz prebentzio-baldintzak nola betetzen diren.

² Jotzen dugu Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa dela, 2008ko uztailaren 22ko 142/2008 Dekretuaz sortua (abuztuaren 1eko EHAA, 146. zk.). Dekretu horren bitartez sortu zen Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa eta arautu zen haren funtzionamendua.



Kontsultan ezarrita dago, «oztopatze-betekizun» bat ez jartzearen, zigilua ez duten enpresek ere ekintzak egin ahal izatea, dokumentazio gehigarri bat aurkeztu eta gero. Dokumentazio hori kasu zehatz bakoitzaren gorabeheran izango da, eta zigilua duten enpresek hartutako konpromisoak ordeztuko lituzke.

III.- Kontratazio- eta azpikontratazio-sektoreari aplikagarri zaion legedia

4. Eraikuntza Sektoreko Azpikontratazioaren Legean eta hura garatzeko errege-dekretuan galdatzen da, eraikuntza-lan batean lanak egiteko kontratatuak edo azpikontratatuak izan nahi duten enpresentzat, besteak beste betekizun hauek betetzea:³

4. artikulua. Kontratisten eta azpikontratisten betekizunak

1. Enpresa batek eraikuntza-sektorean azpikontratitze-prozesuan kontratistatzat edo azpikontratistatzat esku hartu ahal izateko, ondorengo hauek bete beharko ditu:

a) Produkzio-antolaketa propioa izatea, beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak izatea, eta baliabide horiek erabiltzea kontratatutako jarduera garatzeko.

b) Enpresa-jardueraren garapenak dakartzan arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak bere gain hartzea.

c) Obran bere langileek egiten duten lana zuzenean antolatzea eta zuzentzea, eta, bestalde, langile autonomoen kasuan, haiek beren lana autonomiaz eta erabateko erantzukizunez egitea, kontratatu duen enpresaren antolakuntza- eta zuzendaritza-esparrutik at.

2. Aurreko betekizunez gainera, eraikuntza-obra bateko lanetarako kontratatuak edo azpikontratatuak izan nahi duten enpresek, orobat, ondorengo hauek bete beharko dituzte:

a) Egiatzea beren zuzendaritza- eta ekoizpen-arloan badituztela giza baliabideak, lan-arriskuak prebenitzen beharrezko heziketa dutenak, bai eta Lan Arriskuak Prebenitzeari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legeari egokitutako prebentzio-organizazio bat ere.

b) Lege honen 6. artikuluan aipatzen den Enpresa Bermatuen Erregistroan inskribatuta egotea. Inskripzioa ofizioz egingo du lan-agintaritza eskumendunak, hurrengo atalean aipatzen den enpresaburuaren adierazpenean oinarrituta.

3. Enpresa kontratista edo azpikontratistek egiaztatuko dute betetzen dituztela artikuluko honetako 1 eta 2.a) ataletan adierazitako betekizunak, beren legezko ordezkariak

³ Eraikuntzan azpikontratatzeari buruzko 2006ko urriaren 18ko 32/2006 Legea (BOE, 250. zenbakia, 2006 urriaren 19koa) eta 2007ko abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretua, Eraikuntzan Azpikontratatzeari buruzko Legea gratzen duena. desarrolla la Ley de subcontratación en construcción. 2007ko abuztuaren 25eko BOE, 204. zk., 35747. orrialdea. Zuzenketa: 2007ko irailaren 12ko BOE, 219. zk., 37273. orrialdea.



izenpetutako adierazpen baten bidez. Adierazpen hori Enpresa Bermatuen Erregistroan egingo da.

4. Eraikuntza-sektoreko obretan lanak egiteko eskuarki kontratatuak edo azpikontratatuak izateko jarduera duten enpresek, arauz zehazten den eran, kontratu mugagabeko langileen kopuru bat izan beharko dute: gutxienez % 10 izango dira, lege honen indarraldiko lehen hemezortzi hilabetean; gutxienez % 20, hemeretzigarren hilabetetik hogeita hamaseigarrenera; eta gutxienez % 30, hogeita hamazazpigarren hilabetean eta geroztikoetan.

Ondorio horietarako, lan elkartuko kooperatibetan, bazkide langileak besteren konturako langileen antzera zenbatuko dira, arauz zehazten den eran.

Araudi horretaz gainera, legeetan eta hitzarmen kolektiboetan jasotako lan- eta prebentzio-araudiaren mende daude enpresak.⁴

Era berean, eraikinak birgaitzeko beren jardueran, gainerako antolamendu juridikoaz gainera, aplikagarri diren ingurumen- eta irisgarritasun-arauak errespetatu beharko dituzte.

5. Azaldu berri dugun araudiaren asmoa da eraikuntza-sektorean segurtasun- eta enplegu-baldintzak eragile guztiek errespeta ditzaten bermatzea. Horretarako, mugak ezartzen dizkie sektorean sartzeari, legegileak beharrezko eta proportziosko jo dituen mugak.

Administrazio publikoek merkatu batean sartzeko murrizketak ezartzen dituztenean, murrizketa horiek zenbait betekizun bete behar dituzte, 17/2009 Legeak, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoak, dioena betez:⁵

- Bereizkeriarik ez egitea naziotasunagatik edo establezimenduaren kokapenagatik edo gizarte-egoitzagatik.
- Beharra: ordena publikoagatik, segurtasun publikoagatik, osasun publikoagatik edo ingurumenaren babesagatik justifikatuta egotea, edo natura-baliabideen eskasiagatik edo ezin nahasizko eragozpen teknikoak direla eta, merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatua bada.
- Proportzionaltasuna: mugaketa helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izatea, emaitza bera lortzeko aukera ematen duten neurri hain murriztailerik ez dagoelako.

⁴ Ikus, oinarritzko arauditzat, Lan Arriskuak Prebenitzeari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legea (BOE, 269. zenbakia, 1995eko azaroaren 10ekoa, 32590. orrialdea).

⁵ Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko 2009ko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikulua (BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa). Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen arabera (BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10ekoa).



Bereizkeriarik ezaren, beharraren eta proportzionaltasunaren betekizunak betetzen ez dituzten mugak egotea eragozpen bat da zerbitzuak oztoporik gabe emateko, eta, beraz, eragozpen bat da eragindako merkatuan lehia efektiboari eusteko.

Neurri horiek lege-maila izanez gero, LDLaren 4. artikuluan ezarrita dago horiek ezin direla debekatutzat jo.⁶ Halakotzat jotzen dira, ordea, «lehia murrizten duten egoerak, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnak, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnak, lege-babes hori gabekoak».

IV.- Proposamena balioztatzea

6. Proposatutako neurriak estandar batzuk definitzea dakar. Estandar horiek enpresei ahalbidetzen diete borondatezko erregistro batean inskribatzea eta zuzeneko edo zeharkako abantailak dakartzan zigilu bat lortzea.

Era berean, erregistroan inskribatzen diren enpresek konpromiso batzuk hartzen dituzte, legeak horretarako gaitu ez dituen eragile batzuei — «bisitatzailak» direlakoei— indarrean den legedia bete dadin kontrolatzeko bidea emateko.

Neurriaren helburua da ingurumena babestea, sektorean enplegua sortzea eta lan- nahiz prebentzio-araudia errespetatzea dadin sustatzea.

Erregistroan inskribatzeko betekizunak, egindako kontsultatik eratorritzen denez, hauek dira:

- EEBE erroldan inskribatuta egotea,
- erantzukizunpeko adierazpena egitea, beren materialak eta prozesuak ingurumenaren aldetik jasangarriak direla, edo beren eskaintzak teknikoki egiazta ditzakeela lanbide-heziketako ikastetxe batek edo zehazteke dauden beste erakunde batzuek,
- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko bere betebeharrak egunean izatea,
- lan-legedia betetzearekin konpromisoa hartzea,
- sindikatuen eta ugazaben «bisitatzailen» kontrolaren mende jartzea.

7. Eragozpenik ezin zaie jarri lan- eta zerga-araudia betetzearen eskakizunei. Araudi hori bete behar dute, bistan denez, merkatuan diharduten enpresa guztiek.

⁶ Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), abenduaren 22ko 39/2010 Legea aldatzen duena (BOE-A-2010-19703); martxoaren 4ko 2/2011 Legea (BOE-A-2011-4117), eta ekainaren 4ko 3/2013 Legea (BOE-A-2013-5940). Testu bategina: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.



8. Ingurumen-estandar jakin batzuen pean eraikinak birgaitzea bultzatzearen helburua lor daiteke, proposamena bezain murriztailea ez den era batean, ingurumen-betekizun **aurrez ezarriak, objektiboak eta gardenak** ezarriz, eta haiek betetzeko pizgarriak sortuta.

Adibidez, zerga-hobariak edo bestelakoak ezar litezke ingurumenean objektiboki onurak sortzen dituzten betekizunak betetzen dituzten enpresetarako, edo diru-laguntzarik handiena eskatu nahi duten sustatzaileei galda dakieke zehaztutako ingurumen-estandarrak bete ditzatela.

Ezarritako ingurumen-estandarrak betetzen dituzten birgaitze-arloko sustatzaile guztiei diru-laguntza handiagoa ematea (berdin diolarik zer enpresak egiten duen obra) lortuko luke neurria zabaltzea eta askoz eraginkortasun handiagoa lortzea.

Aitzitik, enpresa jakin batzuetarako erregistro bat ezartzeak eta birgaitzearen sustatzaileari diru-laguntza ematea inskribatutako enpresa bat kontratatzearen mende jartzeak merkatua konpartimentuetan zatitzen du, eta lehia-abantaila bat ematen die enpresa jakin batzuei. Neurri horiek ez dira beharrezkoak lortu nahi den helbururako.

Enpresek, sistema horrekin, are prezioz eta kalitatez eskaintza ezberdinuak egin lezkiekete jabe-erkidegoei, eta erkidego horiek datu guztiekin erabaki ahal izango lukete beren aukera.

9. Erantzukizunpeko adierazpenaren ordezkotzat, lanbide-heziketako ikastetxe batek edo zehazteke dauden beste erakunde batzuek eskaintzak teknikoki egiaztatzeari dagokionez, ezin da ontzat eman.

Lehenik eta behin, zehaztugabetasuna dakartelako, hala kontrolatu beharreko betekizunek nola kontrolatzeko ardua ematen zaien subjektuek. Abstrakzio hori logikotzat har liteke, kontsulta noiz egiten den aintzat hartuta, baina ez du ezkutatu behar diru-laguntzak eskuratzean aukerakotasuna sortzeko arriskua dakarrela, Administrazioaz kanpoko erakunde jakin batzuek diru-laguntzak eskuratzeko betekizunak kontrolatzeko bidea ematen baitu. Ikusi dugunez, aukera horrek lehia-arazoak sortzen ditu, besteak beste, baldin oztupoak egoki justifikatzen ez badira.

Kasu honetan, gainera, gogoan izan behar da enpresek araudia betetzearen betekizunak enpresek kontrolatzea ezin dela operadore pribatuen esku utzi, merkatuak kartelizatzeko edo boikoterako arriskua sortuko litzatekeelako, eta gainera Administrazioaren beraren babesa izatearen itxura izango luketelako.

10. Sektorean enplegua biziberritzearen helburuari dagokionez, egoki diseinatutako diru-laguntzazko jarduera batek, berez, eraikinak birgaitzearen



merkatua aktibatzen lagunduko du, eta, horrenbestez, enplegu-sorkuntza horri lagunduko dio.

Birgaitzearen sustatzaileentzako kostu-murrizketak zerbitzu horien eskaria handituko du. Eskari hori, betiere, ezarritako lan-betekizunak betetzen dituzten enpresek ase beharko dute, eta ez dirudi egokia helburu hori lotuta ez dauden beste batzuekin nahastea, adibidez ingurumen-helburuekin.

11. Langileak gaitzearen helburua, orobat, onerako da. Hala ere, ez da egokia langileen eta langabeen heziketa zigilu hori duten enpresei erreserbatzea, baldin asmoa sektoreko enplegu-baldintzak hobetzea bada.

Langileak hezteko jarduera bereizkeriarik gabe egin behar da, eta sektoreko enpresa guztiei irekita egon behar du (gainera, eskaintzeko gaitasuna duen edozein eragileri irekitako eskaintzak ere ahalbidetu behar dira).

12. Azkenik, baldintza «sendo eta egonkorretan» sektorean enplegua sortzeko helburua lortzearen sindikatu- eta ugazaba-«bisitatzailerei» egozten zaien lan- eta prebentzio-araudia betetzea kontrolatzeko mekanismoak ez dirudi egokia.

Antolamendu juridikoak lan-ikuskaritzari ematen dio lan-arriskuak prebenitzearen arloko ez-betetzeak kontrolatzeko eta, hala behar denean, zehatzeko eginkizuna; eta sindikatu-ordezkariei ematen die ez-beteterik izanez gero salatzeko gaitasuna.⁷ Araudian ezarrita dago, orobat, edonork salatu ahal izatea arauaren ez-betetze bat.⁸

Administrazioak baditu bere esku prebentzio-araudia errespetatzeaz kontzientziaztea sustatzeko neurri eraginkorrak, legeetatik at dauden kontrol-mekanismoak sortu gabe; eta, legeetatik at daudenez, mekanismo horietan gaitasunak eta haren erabakien ondorioak ez daude araututa, eta horrek hainbat arazo juridiko sor litzake.

Erregistro publiko bat sortzeak, nahiz eta borondatezkoa izan, planteatu den bezala, zalantza-itzala eragingo luke, ea erregistratu gabeko enpresek legea betetzen duten. Administrazioak ezin du itzal hori onartu, merkatuan diharduten enpresa guztien legezkotasunaren bermatzailetzat.

⁷ 2000ko abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, lan-arloko arau-hausteei eta zigorrei buruzko legearen testu bategina onartzen duena. BOE, 189. zenbakia, 2000ko abuztuaren 8koa, 28285. orrialdea. Zuzenketa: BOE, 228. zenbakia, 2000ko irailaren 22koa.

⁸ Ikus, lan-arloko ikuskaritzako ahalmenei buruz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 617/2014 Epaia, 2014ko abenduaren 30ekoa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 630/2013 Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, laugarren oinarri juridikoa.



13. Kontsultak badu kautela bat, zeinak baitakar, «oztopatze-betekizun» bat ez jartzearen, zigilua ez duten enpresek ere ekintzak egin ahal izatea, dokumentazio gehigarri bat aurkeztu eta gero. Dokumentazio hori kasu zehatz bakoitzaren gorabeheran izango da, eta zigilua duten enpresek hartutako konpromisoak ordeztuko lituzke.

Horri buruz, esan behar da zehaztugabetasun horrek nahitaez dakarrela kaltegarritzat hartzea. «Kasu zehatzaren gorabeheran izango den» dokumentazioa entregatuz erregistroan sartzea lortu ahal izateak aukerakotasuna izan ahal izatea sortzen du. Horrek ez dirudi onargarria proposatutako neurri horretan, gardentasunari eta segurtasun juridikoari kalte egin gabe.

14. Azkenik, erregistro horretan inskribatutako enpresak EEBEan ere inskribatu behar izateak kontrol bikoitza sortzen du, lehiaren kontrakoa.

EEBEan inskribatzeak, arrazoizko dirudienez, indarrean den legezkotasuna betetzen dela kontrolatzea baldin badakar, ez da arrazoizkoa Administrazioak bermatzea sor dadila beste sistema bat, legean ezarri ez diren betebeharrak inposatzen dituen; eta are gutxiago, bigarren inskripzio hori zenbait enpresa aldezteko erabiltzea, delako enpresak kontratatzen dituzten hirugarrenei diru-laguntza handiagoak emanez.

15. Gogoan izan behar da, azkenik, ezen, Mahaian diren eragileek kontsultaren xedetzat merkatuaren baldintzak aldatzeko hitzarmen bat planteatuko balute, neurria har litekeela ingurumen-jasangarritasunaren parametroen bitartez ekindako eraikuntzaren birgaitze eta kontserbazioaren garapen teknikoa edo ekoizpena kontrolatzera jotzen duen hitzarmen edo gomendio kolektibotzat.

Hori, lehiaren ikuspegitik, azter liteke Lehiaren Defentsako Legearen 1. artikulua aurka doan hitzarmenentzat, eta egiaztatu beharko litzateke ea betetzen diren horko 3. ataleko salbuespen-baldintzak, edota Europako Batzordeak lankidetzaren horizontaleko hitzarmenei buruzko zuzentarauetan estandarrak finkatzeko ezarri dituen baldintzak.⁹

«Orobat, estandartzat jo daitezke kalitate-bereizgarri jakin bat edo erakunde arautzaile baten baimena lortzeko baldintzak. Produktuen edo ekoizpen-prozeduren ingurumen-errendimenduari buruzko estandarrak ezartzen dituzten hitzarmenak ere sartzen dira kapitulu honen aplikazio-eremuan.» (Ikus 257. paragrafoa.)

⁹ Batzordearen jakiparazpena: Europar Batasunaren Funtzionamenduko Itunaren 101. artikulua lankidetzaren horizontaleko hitzarmenentzat duen aplikagarritasunari buruzko zuzentarauak. C 11/01. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2011ko urtarrilaren 14a.



Enpresa-ekimen bat Administrazioak babestea ez da oztopo merkatuan lehia antolatzen duten arauak enpresak lotesteko.

22. Zenbaitetan, agintari publikoek enpresak lankidetzaren horizontaleko hitzarmenak sinatzera bultzatzen dituzte, autorregulazioaren bidez interes publikoko helburu bat lortzeko. Hala ere, enpresek 101. artikulura lotetsita jarraitzen dute, zuzenbide nazionala beren jokabide autonomo eta lehiaren kontrakoa sustatzera edo bideratzera mugatzen denean. Bestela esanda, agintari publikoek lankidetzaren horizontaleko hitzarmena sustatzeak ez du esan nahi 101. artikulua hori baimentzen duenik.

Estandarizazio-hitzarmenek eragin ekonomiko onuragarri handiak sor ditzakete, produktuen joan-etorri libreko aukerak handituz, prezioak jaitsiz edo kalitate-estandarrik handituz. Hala ere, estandarrik zehazteak orobat lehia murrizteko eraginak izan ditzake, zenbait enpresa kenduz edo baztertuz, estandarrik egiaz iristeko bidea itxi edo zailduta.

Aurrez zerrenda edo erregistro batean sartzeari baldintzatutako laguntza publikoak emateak eraikinak birgaitzearen merkatuan berebiziko distortsio faktore bat sar lezake, lortzen duen enpresari lehia-abantaila bat ematean.

V.- Ondorioak

LEHENENGOA.- Proposatutako erregistro bat eratzeak zenbait enpresa aldeztu ditu, berekin baitakar sustatzaileak diru-laguntza handiagoa jasoko duela, eta beraz eskaria enpresa haientarantz bideratzen baitu.

BIGARRENA.- Arauaren asmo diren ingurumen-helburuak jarduketa egokiago eta ez hain bereizkeriazkoen bidez lor daitezke.

HIRUGARRENA.- Lan- eta prebentzio-araudia errespetatzeko helburuak Administrazioak edozein enpresatan bermatu behar ditu. Berebat esan daiteke langileak hezteko programez; programa horiek arazorik gabe bultzatu ditzake Gobernuak. Ezin da onartu, baina, zigilu jakin bat duten enpresa batzuek araudia betetzen dutela, eta gainerakoek ez.

Asmo baldin bada arau-hauste gehiagoren susmoa eragiten duen sektore batean kontrola areagotzea, Administrazioak bere kontrol-helburua lor dezake bereizkeriazkoak ez diren neurrien bidez. Orobat esan daiteke langabezia daudenak edo enplegua lortzeko zailtasunak dituztenak hezteko programez: programa horiek, argi eta garbi onuragarri izanik, enpresentzat bereizkeriarik gabe ezarri behar dira.

LAUGARRENA.- Horregatik guztiarengatik, ondorioztatu behar da proposatutako erregistro bat sortzea eraikinak birgaitzeko merkatuan



sartzeko bereizkeriazko oztopo bat dela, eta ez dela beharrezkoa planteatutako helburuak betetzeko.